



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/21 denboraldia

12. ZIRKULARRA

HIRUGARREN MAILA VI. MULTZOKO LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

Zirkular honen bidez argitaratzen da Hirugarren Mailako VI. Multzoko Txapelketa Nazionaleko 2020/21 denboraldiko antolakuntza eta garapena arautzen duen araudia.

Aipatutako arauak eta dagozkien eranskinak bildu dira.

Bilbon, 2020ko urriaren 28an.

ALLICA


KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**HIRUGARREN MAILA VI. MULTZOKO
LEHIAKETAKO ARAUAK ETA
OINARRIAK**

2020/2021 DENBORALDIA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

XEDAPEN OROKORRAK

AURRETIAZKOA. - EZAR DAITEKEEN ERREGIMENA.

2020/2021 denboraldian Hirugarren Mailako Estatuko lehiaketa ez ofizialaren antolakuntza eta garapena Espainiako Futbol Federazioak (RFEF aurrerantzean) 11. Zirkularrean argitaratutako oinarrien eta araudien mende egongo dira, federazioaren antolamendu juridikoko gainerako arauetan xedatuari kalterik egin gabe.

Espainiako Futbol Federazioak beretzat gordetzen du bere eskumeneko beharrezko aldaketak sartzeko eskubidea, edo dagokionean, eskudun organoari proposatzekoa eta lehiaketako araudi eta oinarri hauek interpretatzekoa.

LEHENA. - LEHIAKETAREN TITULARTASUNA ETA SAILKAPENA.

Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionala estatu mailako lehiaketa ofiziala da eta izaera ez profesionala du; Espainiako Futbol Federazioari dagokio lehiaketaren titulartasuna.

BIGARRENA. - EGUTEGIA.

Egutegi ofizialaren arabera garatuko da lehiaketa eta egutegi hori zirkular honi atxikiko zaio **1. Eranskin** gisa.

HIRUGARRENA. TALDEEK LEHIAKETAN IZENA EMATEA.

Taldearen kirol merituen ondorioz estatuko Hirugarren Maila ez profesionaleko lehiaketa ofizialean parte hartzeko eskubidea duten klubek, dagokien talde horren izena eman ahal izango dute lehiaketan xede horretarako finkatutako aldian.

Hirugarren Mailako lehiaketa ofizialean taldearen izena eman nahi duten klubek, RFEFek xede horretarako egokituko duen plataforma web/digitalaren bidez egin beharko dute.

Lehiaketan izena ematea borondatezkoa da eta eginez gero esan nahi du klubak eta kide guztiek borondatez bat egiten dutela RFEFeko organoek indarrean dagoen legediaren arabera baliozkotasunez onartutako Estatutuekin, Araudiekin, lehiaketako arauekin eta gainerako araudi guztiekin eta bereziki pandemiako segurtasun protokoloekin.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

RFEFek talde baten lehiaketako izen-ematea onartzeko, klubak, eta dagokionean taldeak, aurrez bete beharko ditu izena eman nahi duen maila horretan parte hartzeko indarrean diren eta legez eta arauz ezarrita dauden kirol arloko baldintza guztiak.

LAUGARRENA. - LIZENTZIAK ESKATZEKO ALDIAK.

Euskadiko Futbol Federakundeak (aurrerantzean EFF-FVF) ezingo du Hirugarren Mailako AFn dauden klubek aldeko lizentziarik egin, izena emateko alditik kanpo. Aurreikusitako aldien barruan izena emateko, RFEFen aldeko txostena beharko da, Araudi Orokorreko 121. artikuluan eta bat datozenetan xedatua errespetatzeko.

Hirugarren Mailako AFren Ligako Txapelketa Nazionalean futbolari baten izena emateko, denboraldian zehar horretarako egokitutako aldiak egin ahal izango da, Araudi Orokorrean adostuarekin bat etorriz.

2020/2021 denboraldian Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalean futbolari baten izen-ematea formalitzateko 2020ko abuztuaren 4tik 2021eko martxoaren 1era egin ahal izango da.

BOSGARRENA. - LIZENTZIA KOPURUA, TALDE BAKOITZEKO.

Hirugarren Mailako AFko klubek gehienez ere futbolarien 15 lizentzia lortu ahal izango dituzte.

Lehiaketaren hasieratik eta irauten duen bitartean, klubek gutxienez 5 futbolari izango dituzte izena emanda kategorian nazionalean parte hartzen duen talde bakoitzean.

Jokalarien izena emateko eta lizentzien tramitaziorako RFEFen araudi orokorrean xedatua ezarriko da.

SEIGARRENA. - JOKOKO ARAUAK.

Fédération Internationale de Football Association-en jokoko arauak jarraikiz egingo dira partidak eta lehiaketa.

ZAZPIGARRENA. - BALOI OFIZIALA.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Hirugarren Mailako txapelketan eta horren ondorengo faseetan lehiaketako baloi ofiziala erabili beharko da nahitaez partidetan, hau da, ERREA markako HURAN eta HURAN HYBRID modeloa.

ZORTZIGARRENA. - UNIFORMEAK.

1. Futbol-jokalarien uniformeak Araudi Orokorrean jasotako xedapenak bete beharko ditu.
2. Klubak lehenengo uniforme ofizialarekin arituko dira, elkarren aurka aritu behar duten bi taldeen uniformeak berdinak ez badira; berdinak edo antzekoak izanez gero, eta epaileak usteko balu horrek nahasmena ekar dezakeela, kanpoko zelaian ari denak aldatu egin beharko du berea, aldiz, partida zelai neutralean bada, RFEFn edo EFF-FVFn afiliaziorik modernoena duen taldeak aldatu beharko du.
3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, klubek bidaia hasi aurretik hartu beharko dituzte uniformeak aldatu ahal izateko neurriak, ondorioz, bi ekipamendu eraman beharko dituzte nahitaez.
4. Araudi Orokorreko 111. artikulua araberak, publizitateak eduki komertziala izan behar du nahitaez, eta jokalarien jantzietan ezingo da agertu inolako marka, ikur, anagrama, enblema edota irudi politiko edo erlijiosorik edo RFEFren edota EFF-FVFn interesen aurkakorik; halaber, ekipazioen beste eremu batzuk eta osagarriak (kapitainaren besokoa, esaterako) ezingo dira erabili horrelako ikurrak sartzeko, RFEFk edota EFF-FVFK aurrez berariazko baimenik ematen ez badute.

BEDERATZIGARRENA. - LANALDIA ETA ORDUTEGIAK.

- a) Egutegi ofizialean finkatutako egunetan izango dira partidak, Araudi Orokorrean xedatuari eta EFF-FVFK adostuari kalterik egin gabe.
- b) Partidak igandean izango dira, etxeko taldeak erabakitzen duen bezala. Dena dela, Araudi Orokorreko 214.8 artikulua araberak, EFF-FVFK adostu du klubek partida larunbatera aurreratu dezaketela, 15:30etik 20:30era bitarteko edozein ordutara, talde aurkariaren adostasunik gabe.
- c) Era berean, igandeetarako ordu-tarte bat dago eta tarte horretan hasi beharko dira partida guztiak; 10:00etatik 13:00era eta 15:30etik 18:00etara, bi taldeen artean besterik adosten ez bada.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- d) Partida lanegunean bada, klub antolatzaileek 19:30 eta 20:30 artean adostu beharko dute hasiera; klubek batek tarte hori aldatu nahi izanez gero, aurkariaren baimena beharko du eta idatzi baten bidez adieraziko du baimen hori.
- e) Klubek partidaren ordutegia gutxienez zazpi egun lehenago jakinarazi behar diete nahitaez EFF-FVFri eta talde aurkariari, EFF-FVFren intranetean xede horretarako dagoen pasabidearen bidez edo mezu elektronikoa bidali behar dute helbide honetara: futbolsala@euskadifutbol.eus

HAMARGARRENA. - JOKALEKUA ETA INSTALAZIOAK

Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionaleko instalazioei dagokienez, klubek nahitaez jakinarazi behar diete EFF-FVFri jokaleku bat lehiaketa hasi baino gutxienez hamabost egun lehenago. Instalazio guztiek Araudi Orokorreko 203. artikuluan eta ondorengoetan xedatua bete behar dute.

HAMAIKAGARRENA. - JOKALARIEN ZERRENDIA.

1. Epaleei partida hasi baino lehen jakinarazi beharko zaizkie talde bakoitzeko jokalaritza titularren eta ordezkoen zerrendak, baita aulkian egon daitezkeen teknikarien zerrenda ere.

Aktan gehienez ere 14 jokalariren izena egongo da, nahi adina ordezkapen egin ahal izango da eta ordezkatu den jokalaritza bat berriro ere zelaira irten ahal izango da. Jokoko arauen arabera egingo dira ordezkapenak, bolanteak izango dira eta jokoa geratu beharrik ez da izango.

2. Partida hasi ahal izateko, talde bakoitzean taldeari dagokion mailan jokatzen duten hiru jokalaritza egon beharko dira gutxienez.
3. Klub babesle eta filialen eta talde nagusi eta mendekoen arteko harremana RFEFko Araudi Orokorreko 108. artikuluan eta ondorengoan arabera arautuko da.
4. Klub filialetan eta mendeko taldeetan izena emandako jokalaritza babeslearen egiturako klubek taldeetako partida ofizialetan zerrendatu daitezke, baita kate nagusian gorago dagoen beste edozein taldeetan ere,



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

RFEFko Araudi Orokorreko 226, 227 eta 228 artikuluetan xedatua betetzen badute.

5. Denboraldian zehar talde nagusian edo babeslean parte hartzeko aukera bertan behera geratuko da, baldin eta jokalariei, goikoan izena emanda egon arren, denboraldi berean baja eman eta beheragokoan formalizatu bazaie izen-ematea, edo, klub horien lehen taldea maila ez profesionalei atxikita egon eta Erregelamendu Orokorreko 49., 61. edo 192. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean badago.
6. Jokalarien zerrendak bat etorri beharko du Araudi Orokorreko 223. artikulutik 230.era artekoek xedatuekin.

HAMABIGARRENA. - ORDEZKOAK ETA ORDEZKAPENAK.

1. Bertan dauden jokalariai baino ez dira agertuko aktan. Ondorioz, epaileak partida hasi ondoren aktan ez dauden jokalariek ezingo dute jokatu.
2. Berotze-ariketak partida hasi aurretik egingo dira horretarako adierazitako tokian eta epaileek adierazitako baldintzetan.
3. Talde bakoitzeko aulkian egongo dira RFEFren Araudi Orokorreko 231. artikuluan xedatutako pertsonak.

HAMAHIRUGARRENA. - EPAILEAK.

Epaileen izendapenari eta ordainsariei dagozkien alderdietarako, RFEFko Araudi Orokorrak ezarria beteko da eta, dagokionean, AFko epaileen euskal batzorde teknikoak eta eskudun organoak hartutako erabakiak ere bai.

EFF-FVFK 2020/21 denboraldirako onartu duen tarifa 240 euroko ordainagiri bakarra izan da.

Zenbateko honetan sartzen dira kontzeptu guztiak, nahiz epailetzako eskubideak nahiz hiru epaileen dietak eta bidaiako gastuak. Ordainagiri hori jokalekuaren titularrak ordaindu beharko du.

Bankuko transferentzia bidez egingo da ordainketa, AFko epaileen euskal batzorde teknikoak gaituko duen kontura, eta ordainketa egiteko jakinaraziko den moduetako edozein erabili ahal izango du klubak.

HAMALAUGARRENA.- ZIGORRAK ZEHAZTEA.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

RFEFko Zigor Kodeko 56. artikuluan xedatuaren mende daude partidetakozigorren zehapenak.

HAMABOSGARRENA.- OMENALDIAK ETA GAINERAKO GORAZARREAK

Denboraldi honetarako zirkularraren arabera, gorazarre egiteko, omentzeko edo aitortzak egiteko ekintzak RFEFk edota EFF-FVFk baimendu beharko dituzte, eta gehienez ere partida hasi baino 72 ordu lehenago egin beharko da eskaria. RFEFri edota EFF-FVFri ekitaldi hauek egiteko baino ez zaio eskatuko baimena:

- a) Minutuko isilunea egiteko edota elastikoan besoko beltza eramateko. Omendu nahi denaren heriotza finkatutako epe horretatik kanpo gertatuz gero, ez da RFEFren baimenik beharko eta partidako epaileei jakinaraziko zaie instalaziora iristen direnean; omenaldi egin nahi duen taldearen ordezkariak egin beharko die eskaria, epaileek beharrezko neurriak har ditzaten.
- b) Ohorezko sakeetarako.
- c) Garaikurrak emateko, partida hasi baino zazpi minutu lehenago amaitu beharko da.
- d) Tokiko klubak zaletuei, oinarrizko mailako futbol taldeei eta beste edozeini egin nahi zaizkien omenaldiak, partida hasi baino zazpi minutu lehenago amaitu beharko dira.

Espainiar futbol osoaren edo maila jakin baten edota berariazko txapelketa baten izenean ekitaldiak adosteko eskumena RFEFk baino ez du izango.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENA.- GENEROAREN ERREFERENTZIA LEHIAKETAKO ARAUDIETAN ETA OINARRIETAN.

Euskaraz generoaren araberako bereizketarik egiten ez den arren, Zirkular honetan arrazoiren baten ondorioz bereizketa hori egingo balitz eta genero



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

maskulinoa erabiliko balitz epaileei, jokalariei edota gainerako partaideei buruz aritzerakoan, irakurketa errazteko izango litzateke, baina gizonezkoei eta emakumezkoei buruz izango litzateke.

BIGARRENA.- RFEFen 16/17 DENBORALDIKO 42. ZIRKULARRA NAHITAEZ BETE BEHAR DA ADINGABEEKIN.

Adingabearen babes juridikoari buruzko Legearen inguruko araudia nahitaez betetzeko eta eragina izan dezaketen guztiei jakinarazteko, gogorarazten da RFEFen 16/17 denboraldiko 42. Zirkularra nahitaez bete behar dela; Zirkular horretan jakinarazten dira adingabeekin ohiko harremana duten lanbide, ofizio eta jardueretan parte hartzeko bete behar diren baldintzak.

COVID-19aren ONDORIOZKO EZOHIKO XEDAPENAK

LEHENA. - BABES OROKORRA.

Zirkular honetan xedatua aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiaren ondorioz eta RFEFko Batzarraren Batzorde Ordezkaria izango da lehiaketa geratzearen edota lehiaketara itzultzearen erabakia hartzeko eskumena duena, ezinbesteko arrazoiengatik bada eta zenbat iraungo duen erabakitzeko eskumena duena ere honek izango du, lehiaketako epailearen eskumena ez den kasu guztietan.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako ezinbesteko arrazoiak daudela erabakiko da lurralde jakin batean gobernuaren araudi bat edo agindu bat badago eta, dagokionean, eskudun justiziak behar bezalako bermea eman badio araudi edo agindu horri federatutako lehiaketako kirol-jarduerak ez garatzeko, dela edozein mailatako entrenamenduak dela lurralde horretan jokatu beharreko partidak; ondorioak berdinak izango dira muga horiek dituen Alarma Egoera dekretatu bada.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

BIGARRENA. - LEHIAKETAKO AZKEN EMAITZAK, DENEK AMAITUKO EZ BALUTE

Ezinbesteko arrazoien ondorioz lehiaketa eten edo geratzen bada, arau hauek ezarriko dira irabazleak zein izan diren eta mailaz jaitsi eta igoko direnak zein diren erabakitzeko.

a) Fase erregular bakarreko (joan-etorriak) lehiaketak.

Ezinbesteko arrazoiengatik lehiaketa eten edo geratuko balitz, eta lehiaketa amaitzerik ez balego, hau da, hasieran aurreikusitako partida guztiak jokaterik ez balego ekainaren 30a baino lehen, amaitutzat emango da denboraldia eta ez da inor mailaz jaitsiko edo igoko, edo dagokionean, tituluaren irabazlerik ez da egongo klub partaide guztiak egutegi ofizialean aurreikusitako jardunaldien % 50 jokaterik izan ez badute gutxienez.

Eten den unean edo gehienez ekainaren 30ean klub partaide guztiak jardunaldien % 50 edo gehiago jokatuta badituzte, sailkapena baliozkotzat emango da ekainaren 30a baino lehen partida gehiago jokatu ezinda geratzen diren unean eta mailaz jaisteko edo igotzeko eta, dagokionean, titulua lortzeko arau berdinak erabiliko dira, Araudi Orokorrean aurreikusitako arauetan eta lehiaketako oinarrietan erabakitakoaren arabera.

b) Zenbait fase dituzten lehiaketatarako (azpimultzoak, multzoak eta sailkapen-faseak).

Zenbait fase dituzten lehiaketetan edo mailetan (azpimultzoak, multzoak eta kanporaketak) ezinbesteko edozein arrazoiaren ondorioz lehiaketa amaitzerik ez balego, hau da, hasieratik aurreikusitako partida guztiak jokaterik ez balego ekainaren 30a baino lehen, RFEFko Batzorde Ordez kariaren mende geratuko da egoeraren ebazpena, baina kontuan izan beharko da taldeak hurrengo denboraldirako mailaz jaisteko edo igotzeko behar diren partiduen % 50 jokatuta egon beharko direla gutxienez; berdinketa egonez gero, jokaturako partida guztietan zenbatutako koefizientearen bidez ebatziko da, eta jokatzeko jarraitu ezin izan den arte jokaturako fase guztiak batuko dira.

c) Kanporaketa formatua duten lehiaketak.

Ezinbesteko edozein arrazoigatik ekainaren 30a baino lehen kanporaketa bat edo batzuk jokaterik ez balego, txapeldunik gabe amaituko da lehiaketa, eta bestelako emaitzarik ere ez da egongo, jokatzeko zegoen bakarra finala edo final four ez bazen; hala izanez gero, Batzorde Ordez kariak hurrengo denboraldian jokatzeko erabaki dezake.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Dena dela, ezinbesteko arrazoien ondorioz kanporaketako partida batzuk jokatu ahal izan badira eta beste batzuk ez, jokatu duten talde irabazleekin jarraituko da, bai eta jokatu ez arren ez jokatzeko arrazoiak talde horretako kideekin edo partidak jokatzen diren lurraldearekin loturarik ez duten taldeekin ere.”

HIRUGARRENA. - BERARIAZKO ARAUAK TALDE GUZTIEK BERDIN AMAITZERIK EZ BADUTE EDO PARTIDA DENAK JOKATZERIK EZ BADA

1. Talde batek edo batzuk ezinbesteko arrazoien ondorioz ezin badute partida bat edo gehiago jokatu denboraldiko ohiko lehiaketan eta denboraldia amaitu aurretik jokatzerik ez balego, koefizienteen sistema erabiliko da amaierako sailkapenerako, hau da, lortutako puntuen eta jokatutako partida kopuruaren arteko erlazioa izango da kontuan, talde jakin horrek jokatu gabeko partiden kopurua lehiaketa bereko talde gehienek % 20 baino handiagoa ez bada.

Talde jakin horrek jokatutako partiden aldea % 20 baino handiagokoa bada, koefizientearen irizpidea izango da kontuan soilik erabakitzeko zein talde doazen beheko mailara, betiere talde jakin hori ezinbesteko arrazoiengatik egoera horretan badago eta behera jaitsi ahal badaiteke ordura arte lortutako puntuen ondorioz.

2. Ezinbesteko arrazoien ondorioz hirugarren mailako talde batek lehiaketan zehar bere zelaian entrenatzeko eta partidak jokatzeko modurik ez balu bi jardunaldi baino gehiagoz, ordezko bat aurkitu beharko du; ordezko hori bere lurraldean egon beharko da eta bere mailako jokalekuek izan beharreko gutxieneko baldintza guztiak bete beharko ditu.

Berariazko arau hauek gailenduko zaizkie lehiaketako arau hauekin kontraesanean egon daitezkeen gainerako arauak eta beste edozein arau interpretatzeko irizpidea osatuko dute.

LAUGARRENA. - PLANTILAN, TEKNIKARIEN ARTEAN ETA GAINERAKO KIDEEN ARTEAN TEST POSITIBO BAT EGOTEAREN ONDORIOAK

Hirugarren mailako talde batean Covid-19aren ondoriozko positibo bat dagoenean, hau da talde horretako kirol-lizentzia duen edonork positibo ematen duenean, entrenamenduak eta lehiaketako partaidetza bertan behera geratuko dira berehala talde horretako gainerako lizentziadunek Covid-19aren testean negatibo eman dutela egiaztatu arte eta inoiz ere ez dira berriro hasiko positiboaren berri izan eta 7 egun igaro baino lehen.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Lizentzia duten gainerako kideei testa egiterik ez balego edozein arrazoiren ondorioz, aurreko atalean aurreikusia ezarriko da. Irizpide bera erabiliko da epe berean 3 positibo baino gehiago daudenean ere.

BOSGARRENA. - COVID-19aren KASU POSITIBOEN BERRI EMATEKO BETEBEHARRA

Estatu mailako lehiaketa ez profesionaletan eta kirol lehiaketak hasi zirenetik parte hartzen duten klubek nahitaez eman behar diote berri konfidentzialtasun osoz eta sekretu profesionalaren printzipioaren pean, RFEFko Medikuntza Sailari gehienez ere 24 orduko epean, Estatuko lehiaketa ez profesionaletan lizentzia federatua duen edozein kidek Covid-19an positiboa ematen badu.

Betebehar berdina izango du eta irizpide eta berme berdinekin eman beharko du positiboaren berri RFEFekin kirol lizentzia izan eta dagokion klubari positiboaren berri ez ematea egoki irizten dion edonork ere.

Ondorio hauetarako, aurreko paragrafoetan aurreikusitako ez jakinarazpena Zigor Kodeko 68. artikuluan aurreikusitako arau hauste oso larritzat joko da, kiroleko ordena onaren aurkako jokabidetzat hartuko da edo, dagokionean, testu horretako 69bis artikuluan aurreikusitako arau hauste oso larritzat, ekintza bereziki larriak direla uste baita errespetu gabezia nabarmena dagoelako eta bere taldeko eta talde aurkariko kideak arriskuan jartzen direlako.

HIRUGARREN MAILAKO LEHIAKETAKO OINARRIAK

LEHENA. - TALDE PARTAIDEAK.

1. AFko Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalean klub partaideak hogeita lau multzotan banatuko dira lurraldetasun irizpideen arabera; era berean, multzo horietako bakoitzean zazpi edo zortzi klub egongo dira, multzo bakoitzeko talde partaide kopuruaren arabera eta talde eta multzo horiek **2. eranskinean** daude.
2. Hirugarren Mailako euskal multzoan (6. Zenbakiduna) 15 klub daude zazpiko eta zortziko bi azpimultzotan banatuta.

BIGARRENA. -LEHIAKETAKO SISTEMA.

Lehiaketa hiru fasetan garatuko da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

I. Lehenengo fasea edo Liga erregularra (A eta B). (6. multzoa)

Guztira 14 jardunaldi izango dira, azpimultzo bakoitzean zazpi eta zortzi talde egongo dira eta A eta B izango dira, hau da: 6. A multzoa eta 6. B multzoa.

Klub partaideek itzuli bikoitza egingo dute eta puntuen sistema erabiliko da; klub bakoitzak lortzen dituen puntuen arabera egingo da azken sailkapena; irabazitako partida bakoitzeko 3 puntu lortuko dira, berdinketetan puntu bat lortuko da eta galduz gero ez da punturik lortuko.

* Puntuak fase batetik bestera eramaten dira.

Lortutako puntuak eta aldeko eta aurkako golak hurrengo fasera eramaten dira eta talde bakoitzak dagokion fasea hasteko Lehenengo Fasean lortutako puntuak eta golak izango ditu.

II. Berariazko bigarren faseak (C eta D)

A eta B azpimultzoetan Lehenengo Fasean izandako sailkapenak kontuan izango dira 2 azpimultzoak (C eta D) eratzeko, formatu honekin:

- C azpimultzoa: 1. Faseko azpimultzo bakoitzeko 1. sailkatutik 4. sailkatura artekoak.

- D azpimultzoa: 1. Faseko azpimultzo bakoitzeko 5. sailkatutik 8*. sailkatura artekoak.

* 7. sailkatura artekoak, multzoan 7 talde badaude.

Fase erregularra jokatu da berriro, baina talde bakoitza aurrez lehiatu ez duen taldeen aurka arituko da, hau da, 1. Fasean bere azpimultzoan ez zeuden taldeen aurka.

- C azpimultzoa: 8 jardunaldi

- D azpimultzoa: 8 jardunaldi

C azpimultzoetan 1. postuan sailkatu den taldea Bigarren B Mailara igotzeko play off-ean parte hartzeko sailkatuko da.

D azpimultzoetako azken postuan sailkatu den taldea Areto Futboleko Euskal Ligara jaitsiko da.

- Bigarren B Mailara igotzeko play offerako hirugarren fasea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1. kanporaketa: Euskadi – Kantabria

Kanporaketak partida bakarrekoak izango dira eta koefizienterik hoberena duena izango da etxeko taldea; koefizientea jakiteko, lortutako puntu kopurua zati jokatutako partida kopurua egingo da.

Arauzko denbora amaitu eta emaitza berdinketa bada, luzapen bat egongo da eta hiru (3) minutuko bi (2) zati izango ditu luzapen horrek. Luzapenaren ondoren berdinketak jarraituko balu, bost (5) penalti botako dira FIFAko jokoa-arauetan zehaztu bezala.

Gora igotako taldeak multzo batean edo bestean sartu ahal izango dira inguruabar geografikoen arabera eta CNFSren esku egongo da azken erabakia, multzoen azken osaerarako.

Areto Futboleko Hirugarren Mailako Euskal Ligara igotzen diren taldeen berri Federazio Autonomikoak emango du, eta 2021/2022 denboraldian multzoek gehienez 16 talde izatea errespetatu beharko da beti.

Lehiaketako sistema hau da indarrean dagoena, COVID-19aren ondoriozko ezohiko kasuetan onartutako ezohiko araudiari kalterik egin gabe.

HIRUGARRENA. - SAILKAPENERAKO ONDORIOAK.

1. Txapeldunak.

Hirugarren Mailako hogeita lau multzoetako bakoitzeko txapeldunak izango dira lehenengo postuan sailkatzen direnak eta baldintza hori bermatzen duen kopa lortuko dute.

2. Igoera.

Goiko mailara igoko dira gora igotzeko faseak gainditzen dituzten taldeak, lehen zehaztu bezala.

3. Jaitsiera.

Beheragoko mailara jaitsiko da D azpimultzoetako sailkapenik txarreneko kluba, berariazko fasean mailan mantentzea lortzen ez duena.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. Kanporatzeak edo ez agertzeak.

Bi aldiz agertu ez delako lehiaketatik kanporatu den kluba edo lehiaketatik erretiratzen dena ez partaidetzat hartuko da, sailkapeneko azken postuan kokatuko da zero punturekin eta aurreikusitako jaitsiera plazetan kontatuko da.

5. Filialtasun- edo mendekotasun-loturen ondorioak.

Talde filialak eta mendekoak ezingo dira egon klub babeslearen maila edo dibisio berean. Klub babeslea edo nagusia mailaz jaisten bada eta beheragoko maila horretan bere talde filial edo mendeko bat badago, hau ondorengo mailara jaitsiko da.

Klub filialek edo mendekoez ezin izango dute bigarren fasean parte hartu, baldin eta babesleak edo nagusiak plaza bat badu igo daitekeen kategorian, salbu eta, egutegian alde handiak izateagatik, ezin den jakin zein den behin betiko postua talde babeslearen edo filialaren azken sailkapenean. Kasu horretan, bigarren fasea lehia daiteke, baina igoera ez litzateke gauzatuko talde nagusiak edo babesleak kategoria berean segituko balu.

Lotura filialak ez du balioko, inondik eta inora, arauzko xedapenak eta lehiaketako oinarri hauek albo batera uzteko.

LAUGARRENA. - HUTSIK DAUDEN PLAZAK OKUPATZEA.

Beste edozein inguruabarren ondorioz plaza hutsak egonez gero, Araudi Orokorrek horri buruz dionaren arabera arituko da.

BOSGARRENA. - AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO EMAITZAK ZEHAZTEA.

Bi klubek puntu edo koefiziente berdinekin emaitzen badute Ligako Txapelketa, Erregelamendu Orokorreko 201. artikulua arabera, honela argituko da berdinketa, azaldutako ordenan, non eta Covidaren ondorioz ez diren ezarri behar berariazko arauak:

1. Elkarren aurkako partidetan sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
2. Txapelketaren konputu orokorrean sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
3. Bere alde golik gehien sartutakoa.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

4. Joko garbiaren irizpideetan sailkapenik hobereana lortutakoa.
5. RFEF-ek izendatutako jokaleku neutralean partida Erregelamendu Orokorreko 202. artikuluan jasotako irizpideei jarraituz.

Bi klub baino gehiagok Ligako Txapelketa puntu edo koefiziente berdinekin amaitzen badute, Erregelamendu Orokorreko 201. artikulua araberak, berdinketa honela argituko da, azaldutako ordenan eta modu baztertzailan:

1. Elkarren artean jokatutako partidetan puntuaziorik hobereana, gainerako taldeek parte hartuko ez balute bezala.
2. Elkarren aurkako partidetan sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
3. Txapelketaren konputu orokorrean sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
4. Bere alde golik gehien sartutakoa.
5. Joko garbiaren irizpideetan sailkapenik hobereana lortutakoa.


Jarraitzerik ez duen atezain baten ordezkoren kasuan izan ezik, partidaren amaieran jokalekuan dauden jokalariek soilik izango dute baimena penaltixandan parte hartzeko, edo une batez jokalekutik kanpo daudenek, lesioagatik, ekipamendu-aldaketengatik eta abarregatik.





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HIRUGARREN MAILAKO EGUTEGIKO DATAK, 2020/21 DENBORALDIA


			Abend- 20		Urt-21		Ots-21		Mar-21
	3. maila		3. maila		3. maila		3. maila		3. maila
1	AB-J1	6	AB-J6	17	AB-J8	14	AB-J11	7	AB-J14
8	AB-J2	13	AB-J7	27	AB-J9	21	AB-J12	21	CD-J1
15	AB-J3			31	AB-J10	28	AB-J13	28	CD-J2
22	AB-J4								
29	AB-J5								

	Api-21		Mai-21
	3. maila		3. maila
18	CD-J3	2	CD-J5
25	CD-J4	9	CD-J6
		16	CD-J7
		23	CD-J8

A eta B: A eta B azpimultzoa
Lehenengo Fasea
C eta D: C eta D azpimultzoa Bigarren
Fasea



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL



2. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/2021 DENBORALDIA

HIRUGARREN MAILA VI MULTZOKO LIGAKO TXAPELKETA NAZIONALA

KLUB PARTAIDEAK

Ondorengo 16 klub hauek bi azpimultzotan egongo dira eta honela eratuko dira:

VI multzoa.- Afantxo Pesc. Ferreres, Alipendi Zalditxo de Araia, Antiguoko K.E., Aurrera de Vitoria Fútsal, Batzarre, Aerolink Elorrietako, Elorrioko Parra Taberna, Eskoriatza K.E., Gernikako Lagunak Xaibor, Lagun onak GDKO, Mahastiak Labastida Rioja Alavesa, Santurtzi F.S., Sasikoa Durango, Scorpio Alkideba, Tolosala AFKE

VI MULTZOA

A azpimultzoa.- Aerolink Elorrietako, Aurrera de Vitoria Futsal, Batzarre, Eskoriatza, Scorpio Alkideba, Santurtzi FS, Sasikoa Durango C.D.

B azpimultzoa.- Afantxo A.F., Alipendi Zalditxo, Antiguoko K.E., Elorrioko Parra Taberna, Gernika Lagunak Xaibor, Lagun Onak GDKO, Mahastiak Labastida Rioja Alavesa eta Tolossal AFKE.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

